

GRUPO URGATZIKO LANGILEEN KODE ETIKOA

Grupo Urgatzik kode etiko bat dauka eta bere zerbitzu eta proiektu guztietara hedatzen du, langileen bidez. Gure jarduera arautzen duten printzipioak honakoak dira:

1. Errespetua artatutako pertsoneri, hauetan oinarrituta:
 - Zerbitzu bakoitzean aurkitutako desberdintasunak antzeman, esaterako, nazionalitatea, erlijioa, iritzi politikoa edo bizimoduak, eta bakoitzari zerbitzuaren kalitate bera bermatu eta esku hartzeko modua egokitu.
 - Bizikidetzaren unitateko kide bakoitza errespetatu.
 - Sekretu profesionala gorde edozein alderdiri buruz.
 - Neurtu bere jokaeraren eraginak artatutako pertsonen bizi-esparruan.
 2. Beharrezko diskrezioa norberaren lana betetzean, hauetan oinarrituta:
 - Haren bizitza pertsonalari buruzko komentarioak saihestu.
 - Jokabide inpartzialak izan.
 - Komentariorik ez egin artatutako kasuei buruz.
 - Norbere telefonoa ez eman artatutako pertsoneri; izan ere, horrek langilearenganako menpekotasuna areagotu dezake, eta haren eremu pertsonalean sartzea ekar lezake. Artatutako pertsonen independentzia sustatu, hauetan oinarrituta:
 - Lanak partekatu, nagusitasun edo etxekotasun jarrerak albo batera utzita.
 - Norbere balio edo iritziak ez inposatu, baizik eta egokitzat jotzen dena iradoki eta, betiere, norbere ezagutza profesionalak erabili.
 - Artatutako pertsonen jokabide eta ohituretara ahalik eta gehien egokitu.
 - Gurasoak ez ordeztu adingabeen arretan. konfiantzazko harreman pertsonalera dakarren laguntza zehatza eta beharrezko euskarri morala elkartzen saiatu.
 3. Tratu egokia artatutako pertsoneri, hauetan oinarrituta:
 - Tratu lagunkoiegia saihestea, eragin negatiboak eduki ditzake eta.
 - Fabore pertsonalik ez eskatu; izan ere, menpekotasun harremanak sor litzake.
 - Arreta jasotzen duten pertsonen aldetik oparirik ez onartzea.
 4. Erantzukizuna lanean, hauetan oinarrituta:
 - Erantzukizuna bere lan-metodoak, esku hartzeko modua eta pertsonetikiko harreman-mota ezartzean.
 - Erantzukizuna informazio osoa berehala jakinarazi beharraz zerbitzuaren funtzionamendu arruntean eragin lezaketen egoera, gertakari edo gorabehera buruz.
-